

OINARRIZKO EKINTZAK

Lehendabizi eman beharreko pausoa, lehenago esan bezala, baserritarrak aukeratzea izango da, bertako produktuak lortzeko aukeratu dugun bidea baita. Horretarako makinak kokatzen diren herrietako baserritarrekin hitz egingo dugu. Bazkideok inguru horiek eta baserriak ezagutzen ditugunez, gure proiektua azalduko diegu.

Behin produktuak lortuta, hiru bazkide garenez, bakoitza furgoneta banatan, bi herritako makinez arduratuko da. Makinak, egunean bitan beteko ditugunez, goizean eta eguerdian, bakoitza tokatutako herrietako baserrietatik produktuen bila pasa, eta makinan kokatzeaz arduratuko da, zerbait ustela edo badago, guzti hori txukunduz. Bakoitzak furgoneta eta tableta edukiko ditugu, tabletean egunean zehar izandako salmenten nondik norakoak ikusteko aukera izango dugularik.

Astea bukatzerako, baserritarrei ordainketa egingo diegu. Horrela, astean zehar izandako salmentak kontuan hartu eta hurrengo astean horrela jarraitu edo aldaketaren bat egin behar dugun jakingo dugu. Aldaketak egiteko arrazoia akatsen bat egitea izango litzateke, kasu horretan, berriro gerta ez dadin ahalegina egingo dugu, gure lana hobetuz.

